Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)

**2019KO APIRILAREN 30EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko apirilaren 30ean, 14:15ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martinez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

BERTARATUTAKO KIDEAK

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Ainara Saez de Ocariz Albizu andrea.

Naiara Herrero Ruiz de Viñaspre andrea.

Patxi Xabier Segura Martinez de Albeniz jauna.

Jose Antonio Suso Perez de Arenaza jauna.

Jone Berriozabal Boveda andrea.

Joseba Diez Antxustegi jauna.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi jauna.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- AURRENEKO BATZARREN AKTEN ONARPENA:**

**+ 2019ko otsailaren 28koa.**

**+ 2019ko apirilaren 01ekoa.**

Osoko Bilkurak aurrenean zehaztutako batzarren akten

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO-PLENO EL 30 DE ABRIL DE 2019.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 14:15 horas del día 30 de abril de 2019 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D.Jon Txopitea Zugadi.

MIEMBROS ASISTENTES

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albéniz.

Dª. Ainara Saez de Ocariz Albizu.

Dª. Naiara Herrero Ruiz de Viñaspre.

D. Patxi Xabier Segura Martinez de Albeniz.

D. José Antonio Suso Pérez de Arenaza.

Dª. Jone Berriozabal Boveda.

D. Joseba Diez Antxustegi.

Secretario: don Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose el análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES:**

**+ 28 de febrero de 2019.**

**+ 01 de abril de 2019.**

Se presentan los borradores de las

zirriborroak aurkezten dira.

Udalbatzak aktak aho batez onartzen ditu.

**2.- TOKI HAUTESKUNDEAK. MAHAIAREN ZOZKETA.**

Zozketa bidez, 2019ko maiatzean burutuko diren toki hauteskundeetarako hautes-mahaiaren kideen hautatzeari ekiten zaio. Emaitza honako hau da:

Presidentea: Gorospe Rambla, Ana Julia.

1. ordezkoa: Pablo De Guerrero, Sheila.

2. ordezkoa: Hierro Moreno, Maria Mar.

1. Bokala: Martinez Madrid, Maite.

1. ordezkoa: Quintana Leon, Julene.

2. ordezkoa: Perez de Arrilucea Madinabeitia, Felix.

2. Bokala: Dorronsoro Morales, Nira.

1. ordezkoa: Gastiain Beitia, Abilio.

2. ordezkoa: Belacortu Duran, Iñigo.

**3.- 2019KO AURREKONTU OROKORRAK.**

Ikusirik 2019ko ekitaldirako Barrundiako Udalaren Aurrekontu Orokorren, lanpostu zerrendaren eta plantila organikoaren zirriborroa.

KONTUAN HARTUZ: 3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoaren 3. artikuluak xedatutakoaren arabera,

actas de las sesiones plenarias anteriormente definidas.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda aprobar dichas actas.

**2.- ELECCIONES LOCALES. SORTEO DE MESA.**

Se procede, por sorteo, a la elección de los componentes de la Mesa electoral para las elecciones locales de mayo de 2019, que arroja el siguiente resultado:

Presidente: Gorospe Rambla, Ana Julia.

1er suplente: Pablo De Guerrero, Sheila.

2º suplente: Hierro Moreno, Maria Mar.

Primer Vocal: Martinez Madrid, Maite.

1er suplente: Quintana Leon, Julene.

2º suplente: Perez de Arrilucea Madinabeitia, Felix.

Segundo Vocal: Dorronsoro Morales, Nira.

1er suplente: Gastiain Beitia, Abilio.

2º suplente: Belacortu Duran, Iñigo.

**3.- PRESUPUESTOS GENERALES 2019.**

Visto el borrador de Presupuestos Generales, la relación de puestos de trabajo y la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Barrundia para el ejercicio 2019.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 3 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Araba, los Presupuestos Generales

Aurrekontu orokorrak toki erakundeek ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoen zuzentegitarauko erabakien adierazpen formalak dira, finantzen eta kontabilitatearen eremuan.

KONTUAN HARTUZ: Aurrenean aipatutako Foru Arauaren 6. artikuluak xedatutakoarekin bat, Toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen aurrekontu bakoitzak atal hauek eduki behar ditu:

a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreren orria.

b) Betebeharrak betetzeko behar diren kredituak hartzen dituen gastuen orria.

c) Eginkizun egitarauen koadro deskribatzaileak.

d) Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria eta aldaketa nagusiak.

e) Konpromiso-kredituen eranskina.

f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina.

g) Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina.

h) Zorpeketari buruzko eranskina.

i) Pertsonalaren eranskina.

Aurrekontu Orokorrek, halaber, honako dokumentu hauek barnesartuko dituzte:

a) Aurrekontu orokorraren edukia

son la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por las Entidades Locales en cada ejercicio económico y presupuestario.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 6 de la Norma Foral anteriormente mentada, cada uno de los Presupuestos de las Entidades Locales y de sus Organismos Autónomos contendrá:

a) Un Estado de Ingresos estimativo de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio.

b) Un Estado de Gastos comprensivo de los créditos necesarios para atender el cumplimiento de las respectivas obligaciones.

c) Cuadros descriptivos de programas funcionales.

d) Una memoria explicativa del contenido del presupuesto y de las principales modificaciones.

e) Un anexo de créditos de compromiso.

f) Un anexo de las inversiones a realizar durante el ejercicio.

g) Un anexo de transferencias corrientes y de capital.

h) Un anexo de endeudamiento.

i) Un anexo de personal.

Los Presupuestos Generales integrarán además los siguientes documentos:

a) Una Memoria explicativa del contenido de los Presupuestos

azaltzen duen memoria; bertan aurreko aurrekontuaren aldean egin diren aldaketak aztertu behar dira, garrantzitsuenak nabarmenduz, eta haietako bakoitzaren edukia azaldu behar da, bai eta Aurrekontuak Gauzatzeko Arauan ezarritako neurriak ere bai.

b) Tokiko arlo publikoaren aurrekontu bateratua.

c) Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.

d) Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa.

e) Ekonomiako-finantzazko txostena.

Generales en las que se recojan análisis tanto de las modificaciones que presenten los presupuestos respecto de los anteriores, incidiendo en las más significativas, como del contenido de cada uno de ellos y de las demás medidas incluidas en la Norma de Ejecución Presupuestaria.

b) El Presupuesto consolidado del Sector Público Local.

c) La Norma de ejecución Presupuestaria.

d) La Liquidación de los Presupuestos Generales del último ejercicio cerrado.

e) Un informe económico-financiero.

KONTUAN HARTUZ: 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluaren arabera, Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta osoko batzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamazioak aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, osoko batzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Udalbatzak, 4 boto alde (EH BILDU) eta 3 aurka (EAJ), zera erabakitzen du:

**LEHENA.-** Barrundiako Udalaren 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak hasieraz onartzea, halaber, plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, honako zehaztasun

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 15 de la Norma Foral 3/2004, aprobado inicialmente el Presupuesto General, se expondrá al público, previo anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba, por quince días, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un mes para resolverlas.

El Ayuntamiento-Pleno, por 4 votos a favor (EH BILDU) y 3 en contra (PNV), acuerda:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente los Presupuestos Generales para el ejercicio 2019 del Ayuntamiento de Barrundia, así como la plantilla

hauekin:

orgánica y la relación de puestos de trabajo conforme al siguiente detalle:

**DIRU SARRERAK – INGRESOS**

| | |
|---|---|
| 1. Atala - Capítulo 1 | 446.097,04 € |
| 2. Atala - Capítulo 2 | 26.863,38 € |
| 3. Atala - Capítulo 3 | 79.300,00 € |
| 4. Atala - Capítulo 4 | 335.641,24 € |
| 5. Atala - Capítulo 5 | 35.200,00 € |
| 6. Atala - Capítulo 6 | 0,00 € |
| 7. Atala - Capítulo 7 | 0,00 € |
| 8. Atala - Capítulo 8 | 0,00 € |
| 9. Atala - Capítulo 9 | 0,00 € |

**GASTUAK - GASTOS**

| | |
|---|---|
| 1. Atala - Capítulo 1 | 316.176,84 € |
| 2. Atala - Capítulo 2 | 271.431,00 € |
| 3. Atala - Capítulo 3 | 0,00 € |
| 4. Atala - Capítulo 4 | 215.271,44 € |
| 5. Atala - Capítulo 5 | 0,00€ |
| 6. Atala - Capítulo 6 | 56.000,00 € |
| 7. Atala - Capítulo 7 | 14.222,38 € |
| 8. Atala - Capítulo 8 | 0,00 € |
| 9. Atala - Capítulo 9 | 0,00 € |

**TOTAL INGRESOS** 923.101,66 €

**TOTAL GASTOS** 873.101,66 €

RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO/LANPOSTUEN ZERRENDA

| Puesto | F/L | N/S | Prov. | Gr. | C.D. | C.E. | Escala | Titulación | PL | F.P. | Ded. | Sit |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Secretaria-Intervención | F | S | C | A1 | 26 | 19.482,36 | Habilitación Estatal | Licenciatura | 4 | 19.10.2011 | Comp. | C |
| Auxiliar Advo. | F | N | C | C2 | 14 | 14.791,15 | General | Graduado Escolar | 2 | 13.05.2011 | Comp. | V |
| Auxiliar Advo. | L | | C/O | C2 | 14 | 22.427,59 | General | Graduado escolar | 2 | | Comp. | C |
| Alguacil/a | F | N | C | C2 | 8 | 16.039,94 | Especial | Graduado escolar | 2 | 27.06.2018 | Comp. | V |
| Limpiador/a | L | | C/O | AA.PP. | | | | | 1 | 27.06.2018 | Parcial | V |

Behaketak:

Aguazila: Prestutasuna / B2 gidatzeko baimena

**PLANTILA ORGANIKOA**

A. GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOAK.

1. Idazkaria-kontuhartzailea. Taldea A1. Eskala: estatuko gaikuntza. Administrazio egoera: betea.

Observaciones:

Alguacil/a: Disponibilidad / Carnet de conducir B2.

**PLANTILLA ORGANICA**

A. FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN DE CARÁCTER NACIONAL.

1. Secretaría-Intervención. Grupo A1. Escala: habilitación estatal, Situación administrativa: cubierta.

B. ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIOAK.

1. Administrari laguntzailea. Taldea C2. Eskala: Orokorra, Administrazio egoera: hutsik.

C. ADMINISTRAZIO BEREZIKO FUNTZIONARIOAK.

1. Aguazila. Taldea: C2. Eskala: Berezia. Administrazio egoera: Hutsik.

D. LAN KONTRATUPEKO LANGILEAK

1. Finkoak

1. Administrari laguntzailea. Taldea: C2. Administrazio egoera: betea.

2.- Mugagabea

1. Balio anitzeko langilea.

2.Garbitzailea.

**BIGARRENA.-** Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarri eta hurrengo 15 laneguneko epean, espedientea publikoki argitaratzea, epe horretan udalbatzaren aurrean nahi diren erreklamazioak egin ahal izango direlarik. Aurrekontua behin- betiko onartua izango da, aipatutako epean zehar erreklamaziorik jasotzen ez bada; bestela, udalbatzak hilabete bateko epea izango du horiek konpontzeko.

**HIRUGARRENA.-** Aurrekontu orokorra, behin- betiko onartzen denean, ALHAOean atal ezberdinetan laburbilduta argitaratuko da, tramite hori betetzen den arte indarrean jarriko ez delarik.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko onartzen den Aurrekontu orokorraren kopia, Arabako Foru Aldundira bidaliko da, eta hori bidaltzeko ardura Administrazioek izango dute.

Eztabaidan, Alkate-Presidenteak hainbat kontu azpimarratu ditu. Batetik, diru-sarreren alde positiboaren

B. FUNCIONARIOS DE ADMINISTRACIÓN GENERAL.

1. Auxiliar-Administrativo, Grupo C2. Escala: general, Situación administrativa: vacante.

C. FUNCIONARIOS DE ADMINISTRACION ESPECIAL.

1. Alguacil/a. Grupo: C2. Escala: Especial. Situación administrativa: Vacante.

D. PERSONAL LABORAL.

1.- Fijo

1. Auxiliar-Administrativo. Grupo C2. Situación administrativa: cubierta.

2.- Indefinido

1. Operario polivalente.

2. Limpiadora.

**SEGUNDO.-** Someter el expediente de su razón a exposición pública por plazo de 15 días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno. El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se hubiesen presentado reclamaciones; en caso contrario, el Pleno dispondrá de un plazo de un mes para resolverlas.

**TERCERO.-** El Presupuesto General, definitivamente aprobado, será insertado resumido por capítulos en el B.O.T.H.A., no entrando en vigor hasta que se haya cumplido con dicho trámite.

**CUARTO.-** Del Presupuesto General definitivamente aprobado se remitirá copia a la Diputación Foral de Araba, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

En el debate, toma la palabra el Alcalde-Presidente para subrayar diversos aspectos, por un lado, la diferencia

arrazoia da, gastuei dagokienez, "gastu-araua" izeneko arau teknikoaren aplikazioa: nahi gabeko emaitza eragiten du gastuen partidan. Bestetik, herritar orori ematen zaizkion zerbitzuen garrantzia, hala nola kultur zerbitzuak, kirol-zerbitzuak, gizarte-ongizatekoak eta abar: aurrekontu oso soziala dute ondorio, bai eta Administrazio Batzarretarako finantza-ekarpenak ere, zeinak Aurrekontu Orokorren zati esanguratsua hartzen duten. Bukatzeko, erantsi du inbertsioen kapituluan Ekinbide eraikineko estalkiaren eraberritzea planteatu dela, bai eta Mendixur herriko Venta del Patioko 1.an kokatuko den eraikinaren diseinu-prozesua hastea ere. Azkenik, urte amaierara bitartean aurrekontu-aldaketak egingo direlakoan dago, inbertsio gehiago egiteko.

Jarraian, Suso zinegotziak (EAJ) adierazi du bere talde politikoa ez datorrela bat Aurrekontu Orokorrekin, arrazoi hauengatik:

.- Bere taldeak ez du inolako parte-hartzerik izan aipatu Aurrekontuak osatzeko orduan.

.- Langileen gastuen kapitulua (I. kapitulua) handitu izana garrantzitsua da, aipatu Aurrekontu Orokorraren zati bat hipotekatzen duelako.

.- Aurrekontu osoko gastu finkoek, hau da, I., II. eta IV. kapituluek, VI. kapituluko inbertsioak egin ahal izateko aukera eragozten dute.

.- Udala finantza-aldetik oso saneatuta badago ere, ez dago hala islatuta inbertsioen VI. kapituluan; izan ere, gastu-partiden % 6,64 baino ez dira

positiva de los ingresos con respecto a los gastos es debido a la aplicación de la norma técnica llamada "regla del gasto" que produce un resultado no deseado en las partidas de gastos; por otro lado, la importancia de los servicios que se prestan al conjunto de la ciudadanía, así, servicios de cultura, deportivos, bienestar social, etc... que dan como resultado un presupuesto muy social y las aportaciones financieras a las Juntas Administrativas que copan una parte significativa de los Presupuestos Generales. Para finalizar, añade que en el capítulo de inversiones se plantea la reforma de la cubierta del edificio Ekinbide y el inicio del proceso de diseño del edificio a ubicar en el nº 1 de Venta del Patio de la localidad de Mendixur, además, entiende que hasta el final de año se realizarán modificaciones presupuestarias para realizar nuevas inversiones.

Acto seguido toma la palabra el edil Suso (PNV) para adelantar el sentido negativo de su grupo político a los Presupuestos Generales en base a lo siguiente:

.- No se ha producido ningún tipo de participación de su grupo en la confección de dichos Presupuestos.

.- El aumento del capítulo de gastos de personal (Capítulo I) es importante e hipoteca parte de dicho Presupuesto General.

.- Los gastos fijos del conjunto del Presupuesto, esto es, los capítulos I, II y IV lastran la posibilidad de realizar inversiones del capítulo VI.

.- A pesar de tratarse de un Ayuntamiento muy saneado financieramente, no se refleja en el capítulo VI de inversiones, ya que solo

aipatu eginkizunetarako, beraz, Aurrekontua ez da asmo handikoa, oso zuhurra baizik.

se destina un 6,64% de las partidas de gastos a dichos menesteres, lo que da lugar a un Presupuesto poco ambicioso y muy rácano.

Alkate-Presidenteak erantzun du bere ustez gastu-partiden I. kapitulua (langileena) bikain datorrela bat Barrundiako udal-barrutiko egiturazko errealitatearekin, eman beharreko zerbitzuak garatzeko eta egin beharreko askotariko transferentziak egiteko beharrezkoa baita giza talde nahikoa izatea, pertsona-kopuruari eta pertsona horien prestakuntzari dagokienez. Inbertsioen kapitulua dela eta, gogoratu du 2018 ekitaldian inbertsio nabarmenak egin direla gastuen VI. kapituluko obretan eta zerbitzuetan, eta orain ekitaldi honen bukaera aldera eta hurrengoan garatu beharreko proiektu gehiago eratu beharra dagoela, aurrekontu-aldaketa bidez benetan gauza daitezen.

En la réplica, el Alcalde-Presidente manifiesta que, a su entender, el capítulo I (de personal) de las partidas de gastos se acomoda perfectamente a la realidad estructural del término municipal de Barrundia, ya que para el desarrollo de los servicios a prestar y las transferencias de todo tipo a realizar es necesario contar con un grupo humano suficiente en elementos y cualificación. En cuanto al capítulo de inversiones, recuerda que el ejercicio 2018 ha sido eminentemente inversor en obras y servicios del capítulo VI de gastos y se trata de madurar nuevos proyectos a desarrollar a finales del presente ejercicio y del siguiente para su realización efectiva vía modificaciones presupuestarias.

**4.- LANGILEEN LANSARIAK 2019.**

IKUSIRIK: 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-Dekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neuriak sektore publikoaren esparrua arautzen duen 3.bi artikuluak, hauxe dago xedatuta: “2019 urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen lansariek ezingo dute izan %2,25eko igoera orokorra baino handiagoa, 2018ko abenduaren 31n indarrean zirenei dagokionez, alderatu beharreko alde bietarako homogeneotasunari eutsita bai langileei kopuruari bai haien antzinatasunari begira”.

3.bi artikuluaren bigarren paragrafoak aurreikusten du, aurrekoaz gain, 2018an prezio iraunkorrak kontuan hartuta Barne Produktu Gordina %

**4.- RETRIBUCIONES DE TRABAJADORES 2019.**

VISTO: Que el art. 3.dos del Real Decreto Ley 24/2018, de 21 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público, “en el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,25% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo”.

El segundo párrafo del art. 3. dos prevé que, además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto a

2,5era iritsiko edo hori baino gehiago haziko balitz, lansarian % 0.25eko beste igoera bat ezarriko litzatekeela, 2019ko uztailaren 1etik aurrera. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundea izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd. 2,4aren berdina: %2,45.

Horrez gain, soldata-masaren % 0,25eko igoera gehigarria baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, hainbat helburu lortzeko planak edo proiektuak ezartzeko: produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko, baliokideak izan daitezkeen funtziodun lanpostuen artean osagarri zehatzak berraztertzeko, helmuga-osagarriak homologatzeko edo pentsio – planetarako ekarpena egiteko. Administrazioetan eta 3 artikuluan bertan definituriko sektore publikoko gainerako erakundeetan, 2018an aurrekontu-superabita izandakoetan, igoera gehigarria % 0.3ra bitartekoa izango da.

KONTUAN HARTUZ: 2019ko Aurrekontu Orokorretan nahikoa eta egokia den zuzkidura dago gastuari aurre egiteko.

AINTZAT HARTU DA: Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzeko Legearen 22.2).e artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalbatzari dagokiola:

.- Lan – talde eta lanpostuen zerrenda

precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5% se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2019, otro 0.25% de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5% señalado, el incremento disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30%.

PIB igual a 2,2: 2,35%.

PIB igual a 2,3: 2,40%

PIB igual a 2,4: 2,45%.

Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0.25% de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en el propio artículo 3 en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2018, este incremento adicional podrá alcanzar el 0.3%.

CONSIDERANDO: Que existe crédito adecuado y suficiente para atender el gasto en los presupuestos Generales 2019.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 22.2.e) de la Ley reguladora de Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno:

.- La aprobación de la plantilla de personal y de la relación de puestos de

onartzea, funtzionarioen lansari osagarri finkoen eta aldizkakoen zenbatekoa eta aldi baterako langile kopuru finkatzea.

Osoko Bilkurak, aho batez, honakoak adostu ditu:

LEHENENGOA.- Onestea Barrundiako Udalaren langileen ordainsariak %2,25 igotzea (2018ko abenduaren 31ko dagozkienei oinarritzat hartuz).

Igoera horrek atzeraeraginezko ondorioa izango du 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

BIGARRENA.- Lehenengoko zenbakian zehaztutakoa Udalhitz 2008-2010 hitzarmenaren estalpean dauden enplegatu publikoei soilik aplikatuko da.

HIRUGARRENA.- Enplegatu publikoei jadanik osatutako eta ez ordaindutako lansarien atzerapenak datorren ekaineko hilearen nominetan aplikatuko dira.

LAUGARRENA.- Langile publikoaren kasuan, zeinari "Arabako Eraikin eta Lokalen Garbiketen Sektorea" delakoan dagoen hitzarmena aplikatu behar zaion, lansarien igoera izango da aipatu Hitzarmenean jasota dagoena, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehazturikoei dagokien mugaz.

BOSGARRENA.- Ebazpen horren berri ematea GESOC aholkularitzari eta udal langile publikoei.

**5.- LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETA (IDAZKARI-KONTUHARTZAILE-DIRUZAINA).**

trabajo, la fijación de la cuantía de las retribuciones complementarias fijas y periódicas de los funcionarios y el número y régimen del personal eventual.

El Ayuntamiento – Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar el incremento de las retribuciones del personal al servicio del Ayuntamiento de Barrundia en un 2,25% (tomando como base las correspondientes a 31 de diciembre de 2018).

Este aumento tendrá efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2019.

SEGUNDO.- Señalar que lo determinado en el apartado anterior, es aplicable exclusivamente a los empleados/as públicos que se rigen por el convenio Udalhitz 2008-2010.

TERCERO.- Los atrasos por las retribuciones devengadas y no satisfechas a los empleados públicos serán abonadas en la nómina correspondiente al mes de junio.

CUARTO.- En el caso de la empleada pública cuyo convenio de aplicación es el correspondiente al del "Sector de Limpiezas de Edificios y Locales de Araba" el aumento de las retribuciones será el definido en dicho Convenio con el límite correspondiente a los definidos en la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

QUINTO.- Notificar la presente resolución a la asesoría laboral GESOC y a los empleados/as públicos municipales.

**5.- MODIFICACION DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO (SECRETARIO-INTERVENTOR-TESORERO).**

AURREKARIAK: Alkatetza-Presidentetzak proposatu du Udalaren lanpostu-zerrendan aldaketa egitea; zehazki, idazkari/kontu-hartzaile/diruzain lanpostuari dagokiona.

Horrela, idazkari/kontu-hartzaile lanpostuari dagokionez, Udalbatzak, 2015eko irailaren 21eko saioan, aipatutako Idazkari/kontu-hartzailea diruzain ere izendatu zuen 2015eko irailaren 12tik aurrera. Ebazpen horretan ez zen ezer aipatzen ordainsariaren gainean. Bestalde, Udalaren lan-karga orokorraren areagotzearen ondorioz, lanaldia "de facto" pasa da zatitua izatera.

Ciudad Realeko Toki Administrazioko Idazkari, Kontu-hartzaile eta Diruzainen Elkargo Ofizialak (Kataluniakoa bere eginda) diruzain-lanpostuaren legezko aldaketaren ondorioz arduren areagotzearen gaineko txostenean, honako hau aipatzen du:

"Beharrezkoa da ordainsaria konpentsatzeko mekanismo objektiboa eta zentzuzkoa ezartzea, zeinak Idazkari-kontu-hartzaile lanpostuaren titularrak iragankorki metatu edo esleitu zaizkion Diruzain funtzio berrien ondorioz bere gain hartu beharko duen zailtasun teknikoaren eta ardura formalaren areagotzea aitortzen duen (uste dugu, gainera, luze joko duela egoera iragankor honek) (Ramón Rodriguez Viñals Asesores Legales S.L.-k egindako txosten juridikoaren laburpena – Palma Mallorca, 2015eko azaroaren 15a)".

Ondorioz, proposatzen da berariazko osagarria % 18,18 igotzea (zailtasun

VISTO: Que por parte de la Alcaldía-Presidencia se propone la modificación en la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento; concretamente, el referente al puesto de secretario-interventor-tesorero.

En lo referente al puesto de Secretario-Interventor, el Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada en fecha 21 de septiembre de 2015, nombró a dicho Secretario-Interventor municipal como Tesorero con efectos 12 de septiembre de 2015. En dicha resolución no se hacía referencia a ningún aspecto retributivo. Por otro lado, el aumento de la carga de trabajo general del Ayuntamiento hace que, "de facto", la jornada laboral sea partida.

El Colegio Oficial de Secretarios, Interventores y Tesoreros de Administración Local de Ciudad Real (que hace suyo el de Catalunya) evacua informe en relación al aumento de responsabilidades derivadas de la modificación legal correspondiente al puesto de Tesorero, señalando:

"Se hace necesario establecer un objetivo y razonable mecanismo de compensación retributiva que reconozca el más que probable incremento de dificultad técnica y responsabilidad formal que va a tener que asumir el titular del puesto de Secretaria-Intervención al que se le han adscrito o acumulado transitoriamente las nuevas funciones de Tesorería (situación transitoria que nos tememos que será de bastante larga duración) (extracto del informe jurídico evacuado por Ramón Rodriguez Viñals Asesores Legales S.L. – Palma de Mallorca, 15 de noviembre de 2015)".

Se propone en consecuencia un

teknikoa eta ardura).

Lanaldi erreal eta efektibo zatitua konpentsatuko litzateke Udalhitz Hitzarmenean oraindik indarrean dagoen zatiaren arabera.

Horrela, euskal toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren (UDALHITZ 2008-2010) bere 76. artikuluan xedatutakoaren arabera:

1.- Erabateko baliagarritasuneko lanaldi luzatuak aurretik aipatutako bi kontzeptuak sartzen ditu aldi berean, lanaldi luzatua eta erabateko baliagarritasuna, beren errekerimenduekin eta inplikazioekin.

2.- Lanaldi luzatuta duten lanpostuek soldata, lanpostu-mailako osagarria eta tarte bereziko berariazko osagarria batzean lortzen den kopuruaren %25a baino gehiago ezin izango dute jaso kontzeptu horregatik.

KONTUAN HARTUZ: Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 69.1 artikuluak xedatutakoaren arabera, Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eraginez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini.

KONTUAN HARTUZ: Uztailaren 6ko,

aumento del complemento específico en el 18,18% (dificultad técnica y responsabilidad).

La jornada real y efectiva partida se compensaría de conformidad con la parte aún vigente del Convenio Udalhitz.

Así, de conformidad con el artículo 76 del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de las instituciones locales vascas (UDALHITZ 2008-2010):

1.- La modalidad Jornada ampliada con disponibilidad absoluta retribuye conjuntamente los conceptos anteriormente reseñados, jornada ampliada y disponibilidad absoluta con todos sus requerimientos e implicaciones.

2.- Los puestos de trabajo con el requerimiento de Jornada ampliada con disponibilidad absoluta percibirán por este concepto un máximo del 25% de la cantidad resultante de Sueldo, Complemento de Destino y Complemento específico Tramo General.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 69.1 del Texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del empleado público, la planificación de los recursos humanos en las Administraciones Públicas tendrá como objetivo contribuir a la consecución de la eficacia en la prestación de los servicios y de la eficiencia en la utilización de los recursos económicos disponibles mediante la dimensión adecuada de sus efectivos, su mejor distribución, formación, promoción profesional y movilidad.

CONSIDERANDO: Que de conformidad

6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 13. artikuluak xedatutakoaren arabera, euskal administrazio publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak.

Aurrenekoa ikusirik, Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

*LEHENA.-* Barrundiako Udalaren lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, Idazkari-kontuhartzaile-diruzainari dagokienez, lanpostua I. Eranskinean zehaztuta gelditzen delarik.

Lanpostuaren oinarrizko ezaugarriak honela gelditzen dira:

+ Udalhitz-aren maila: 25.

+ Berariazko osagarri berezia: %25.

*BIGARRENA.-* Lanpostuen zerrenda aldatua Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko Web orrian argitaratzea.

*HIRUGARRENA.-* Honako erabaki hau Arabako Gobernuaren ordezkaritzaordekoari eta Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailari jakinaraztea.

**6.- 2020-2021 EKITALDIETARAKO OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA.**

IKUSIRIK: Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2020-2021 aldian

con el art. 13 de la Ley 6/1989, de 13 de julio, de la Función Pública Vasca, las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las Administraciones Públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos exigidos para su desempeño y clasifican cada uno de ellos.

Visto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

*PRIMERO.-* Aprobar la modificación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Barrundia, en relación al de Secretario-Interventor-Tesorero, quedando descrito en el Anexo I.

Las características básicas del puesto de trabajo son:

+ Nivel de Udalhitz: 25.

+ Complemento específico especial: 25%.

*SEGUNDO.-* Publicar la modificación de la relación de puestos de trabajo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, tablón de edictos de la Casa Consistorial y en la página Web municipal.

*TERCERO.-* Remitir el presente acuerdo a la Subdelegación del Gobierno en Araba y al Departamento de Administración Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco.

**6.- PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS PARA LOS EJERCICIOS 2020-2021.**

VISTO: El Decreto Foral 22/2019, del Consejo de Gobierno Foral, de 9 de abril, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de la línea

laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

KONTUAN HARTUZ: 09/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzekoaren 7.3 artikuluaren arabera, "Ekipamendu eta zerbitzuetako obrak" hartzen dira ondokoak:

............

3.16.- Aurreko puntuetan sartu ez diren beste obra eta zerbitzu batzuk, betiere laguntza hauek emateko onartutako oinarrietan "ekipamendu eta zerbitzuetako obratzat" hartu badira.

3.8.- Diruz lagundutako obren zerbitzu sariak, aurreko atalekin lotura duten udal, udal arteko edo herri arteko ekipamendu edo zerbitzuei buruzkoak.

.......

KONTUAN HARTUZ: 09/2017 Foru Araua, apirilaren 12koa, Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzekoaren 12.3 artikuluaren arabera, dena den, oinarrietan zehazten diren agiriez gain, Obra eta Zerbitzuen Foru Planean barne hartzeko laguntza eskabide bakoitzarekin batera jarraian adierazitako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Egin beharreko obra edo zerbitzuaren proiektua, aurreproiektua, aurrekontua, memoria eta azterlana, honako atal hauek dauzkana: obra edo zerbitzuaren deskripzioa eta beraren ezaugarri funtzionalak, formalak, eraikuntzakoak eta ekonomikoak; obraren justifikazioa; berritu nahi diren instalazioen aintzinatasuna; egin nahi diren lanen oinarrizko

de ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Araba para el periodo 2020-2021 por el Plan Foral de Obras y Servicios.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 7.3 de la Norma Foral 09/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Araba, se considerará "obras de equipamiento y servicios", las siguientes:

........

3.16.- Aquellas otras obras y servicios de cualquier ámbito no incluidos en los puntos anteriores que en las bases que se aprueben para regular la concesión de estas ayudas, se concreten como "obras de equipamientos y servicios".

3.8.- Honorarios correspondientes a obras subvencionadas relativas a los equipamientos o servicios de ámbito municipal, intermunicipal o supralocal relacionados en los apartados anteriores.

........

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 12.3 de la Norma Foral 09/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Araba, en todo caso, sin perjuicio de la documentación que se determine en las bases, cada solicitud de ayuda para su inclusión en el Plan Foral de Obras y Servicios, deberá presentarse acompañada de la siguiente documentación:

a) Proyecto, anteproyecto, presupuesto, memoria o estudio de la obra o servicio a realizar en el que se incluirá una descripción de su naturaleza y sus características funcionales, formales, constructivas y económicas; justificación de la obra; antiguedad de las instalaciones que se pretende renovar; planos básicos de localización de la actuación

kokapen planoak; aurrekontuaren zenbatespena (lizitazioaren oinarria + BEZ), behar bezala xehatua; zerbitzu sarien kostu osoa.

b) Obra edo zerbitzua finantzatzeko plana eta konpromisoa. Bertan, erakundearen ekarpena, auzotarren ekarpenak, beste entitate batzuen dirulaguntzak, finantzaketa edo mailegu foru lerroak eta, orokorrean aurreikusten den beste edozein finantzaketa iturri zehaztu beharko da.

c) Entitate eskatzailearen hirigintza alorreko teknikari aholkulariaren txostena, non egiaztatuko den, aurkeztutako agirian oinarrituz, egin beharreko obrak edo zerbitzuak udalerriko Hirigintza Plangintza betetzen duela, baita irisgarritasun eta mugikortasun eremuan indarrean dagoen arautegia ere.

d) Eskumena duen Toki erakundeko gobernu organoak hartutako erabakiaren ziurtagiria, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren laguntzak eskatu izanari buruzkoa. Ziurtagiri horretan diruz lagunduko den obra eta zerbitzuari aplikagarri zaion arautegi osoa betetzeko konpromisoa adieraziko dute eta berariaz jasoko da aurreko a) paragrafotik c) paragrafora adierazitako agirien edukia onetsi dutela.

e) Foru Sareko errepideen babes eremuen barruan dauden gainerako jardunetarako ere Errepide Zerbitzuaren txostena beharko da.

GERTUA IZANIK: INFORLUR S.L. merkataritza-etxeari "Mendixurreko Venta del Patio 1. zenbakiko zatikazko eraispenaren egitasmoa (2. poligonoaren 353. lursaila)" deritzona burutzea eskatu zaio.

solicitada, asi como la estimación del presupuesto base de licitación + IVA, con suficiente nivel de desglose, e indicación de los costes totales de los honorarios.

b) Plan y compromiso de financiación de la obra o servicio, en el que se especificará la aportación de la Entidad, aportaciones de los vecinos, subvenciones de otros organismos, líneas forales de financiación o prestámos y, en general, detalle de cualquier otra fuente de financiación prevista.

c) Informe del técnico asesor en materia urbanística de la Entidad solicitante, en el que se acredite que, con base en el documento presentado, la obra o servicio a realizar cumple el Planeamiento Urbanístico Municipal, así como la normativa vigente en materia de accesibilidad y movilidad.

d) Certificación del acuerdo adoptado por el órgano de gobierno de la Entidad Local que resulte competente, de solicitud de las ayudas del Plan Foral de Obras y Servicios, en el que se manifieste su compromiso de cumplimiento íntegro de la normativa aplicable a la obra o servicio subvencionable, y que incluya expresamente la aprobación del contenido de los documentos señalados en los párrafos a) a c) precedentes.

e) Para aquellas actuaciones que se encuentren dentro de las zonas de protección de las carreteras de la Red Foral, informe del Servicio de Carreteras.

ATENDIDO: Que se ha encargado a la mercantil INFORLUR S.L. la redacción del denominado "Proyecto de demolición parcial de la Venta del Patio nº 1 de

GERTUA IZANIK: INFORLUR S.L. merkataritza-etxeak, 2019ko apirilaren 23an (657. sarrera erregistroa), aurrenean zehaztutako egitasmoa aurkeztu du, beronen zenbatekoa 87.356,54 €takoa izanik.

Udalbatzak, Obra eta Zerbitzuen Foru Planera igortzeko proposamenaren bozkatzeari ekiten dio, horrela:

- Proposamenaren aldeko bozkak: 4 boto (EH BILDU).
- Proposamenaren aurkako bozkak: 3 boto (EAJ).

Ondorioz, honako hau onartzen da:

*LEHENA.-* Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2020-2021 programan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateari atxikitzea (Diputatuen Kontseiluaren 22/2019 Foru Dekretua, apirilaren 2koa).

Halaber, diruz lagundutako lanari aplikagarria den arautegia bere osotasunean betetzera konpromezua hartzea, eta apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 12.3 artikuluaren a)tik c) ra ahopaldietan zehaztutako dokumentuen edukia espreski onartzea.

*BIGARRENA.-* Mendixur (Barrundiako udal-mugartea) herrian "Mendixurreko Venta del Patio 1. zenbakiko zatikazko eraispenaren egitasmoa" deritzon egitasmoa garatzeko dirulaguntza eskatzea.

Lizitazio oinarria 87.356,54 €takoa da (BEZ barne).

*HIRUGARRENA.-* Hamabost urtez dirulaguntzaren xede izan diren azpiegiturak edo ekipamenduak

Mendijur (polígono 2 parcela 353)".

ATENDIDO: Que la mercantil INFORLUR S.L., en fecha 23 de abril de 2019 (registro de entrada nº 657), ha presentado el antecitado proyecto, fijándo el valor de dichas obras en 87.356,54 euros.

El Ayuntamiento-Pleno procede a votar la propuesta presentada para su remisión al Plan Foral de Obras y Servicios, así:

- Votos a favor de la propuesta: 4 votos (EH BILDU).
- Votos en contra de la propuesta: 3 votos (PNV).

se aprueba lo siguiente:

*PRIMERO.-* Acogerse a las ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Araba en el periodo 2020-2021, desarrolladas dentro del Plan Foral de Obras y Servicios (Decreto Foral 22/2019, de 9 de abril, del Consejo de Diputados).

Además, comprometerse al cumplimiento íntegro de la normativa aplicable a la obra subvencionable, y aprobar expresamente el contenido de los documentos señalados en los párrafos a) a c) del art. 12.3 de la Norma Foral 9/2017, de 12 de abril.

*SEGUNDO.-* Solicitar ayuda para el desarrollo del denominado "Proyecto de demolición parcial de la Venta del Patio nº 1 de Mendijur" en la localidad de Mendixur (término municipal de Barrundia).

El presupuesto de licitación asciende a 87.356,54 € (IVA incluido).

*TERCERO.-* Mantener durante quince años las infraestructuras o

edukitzea.

LAUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari zera jakinaraztea, Barrundiako Udalak konpromezua hartzen duela lehen aipatutako obrak burutzeko beharrezkoa den zuzkidura ekonomikoa bere Aurrekontuetan kontsignatzeko.

BOSGARRENA.- Honako erabaki hau Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari jakinaraztea.

Eztabaidan, Alkate-Presidenteak adierazi du Mendixur herriko Venta del Patioko 1.an kokatu beharreko proiektua garatzen jarraitzeko gogoa dagoela; horretarako, "Mendixurreko Venta del Patioko 1.a -2. poligonoko 353. lursaila- partzialki eraisteko proiektua" deritzon proiektua idatzitakoan, 2020-2021 epealdirako Obren eta Zerbitzuen Foru Planean jaso nahi da, aipatu prozesuan beste etapa bat burutzeko. Gogoratu du ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan partida bat dagoela toki horretarako proiektu orokorraren lehenengo zirriborroa egiteko. Proiektua, osorik, 2020 ekitaldian gauzatuko da.

Ondoren, Suso zinegotziak (EAJ) esan du ez datorrela bat proiektu hori 2020-2021 epealdirako Obren eta Zerbitzuen Foru Planean aurkezteko asmoarekin, oraindik ez baitute ikusi Mendixurreko Venta del Patioko 1.an garatu beharreko proiektua; erantsi du bere talde politikoa Barrundia eta Lautadako lehen sektorea sustatzeko programa bat garatzearen alde dagoela, produktuen merkaturatzeari dagokionez, baina, bere ustez, aipatu

equipamientos objeto de subvención.

CUARTO.- Comunicar al Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Araba que el Ayuntamiento de Barrundia se compromete a consignar en sus Presupuestos generales la dotación económica necesaria para la realización de las obras anteriormente mentadas.

QUINTO.- Notificar la presente resolución al Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Araba.

En el debate, el Alcalde-Presidente manifiesta la voluntad de seguir desarrollando el proyecto a ubicar en el nº 1 de Venta del Patio de la localidad de Mendixur, para ello, una vez redactado el denominado "Proyecto de demolición parcial de la Venta del Patio nº1 de Mendixur – parcela 353 del polígono 2", se plantea su inclusión en el Plan Foral de Obras y Servicios 2020-2021 en orden a cumplir una etapa más de dicho proceso; recuerda que en los Presupuestos Generales del ejercicio existe una partida para realizar un primer esbozo del proyecto general de esa ubicación. El proyecto, en su conjunto, se materializará en el ejercicio 2020.

A continuación toma la palabra el edil Suso (PNV) para expresar su oposición a presentar en el Plan Foral de Obras y Servicios 2020-2021 el proyecto propuesto toda vez que siguen sin ver el proyecto a desarrollar en el nº 1 de Venta del Patio de la localidad de Mendixur, añade que su grupo político se muestra favorable a desarrollar un programa de potenciación del sector primario de Barrundia y de la Lautada en

kokalekua ez da egokiena, eraikin gehienak eraitsi egin behar direlako, beraz, ideia oso garestia da; bukatzeko, adierazi du inbertsioak ez duela finantza-itzulkin argirik.

Alkate-Presidenteak erantzun du zenbait inbertsio publikok sekula ez dutela izango finantza-itzulkinik, Abiadura Handiko Trenak, kasu, zeinak EAJ alderdi politikoaren babesa duen; Barrundiako kasuan, helburua da lehen sektorea babestea, merkaturatzearen bidez, eta ahalegina egingo da finantza-itzulkina ahalik eta handiena izan dadin.

**7.- "AHT-RIK EZ! LAUTADA" PLATAFORMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

IKUSIRIK: "AHT-rik ez! Lautada" euskarriak, 2019ko martxoaren 28an aurkeztutako mozioa (492. sarrera-erregistroa), hitzez-hitz honako hau dio:

"2018ko urtarrilaren 10ean, Sustapen Ministerioak jendartean eman zuen aditzera **Abiadura Handiko Trenaren (AHT) trazaduraz egiten zuen proposamena, Arabako Lautadari larriki eragin liezaiokeena.**

Trazadura proposamen horrek bestelako beharrizan sozialetan erabil litekeen **diru-publiko kopuru izugarria (850 milioi euro) xahutzea lekarke**, adibidez, osasun-zentroen hobekuntzan, eskolen, pentsioen,... hobekuntzan, nahiz egungo tren-sarea berean ere.

**Abiadura Handiko proiektu honek ez dio inolako onurarik ekarriko Arabako Lautadari**, ez ekonomia eta gizarte garapenaren ikuspuntutik, ez eta ingurumenari dagokionez ere. Halaxe frogatzen du proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginak: lubeta handiak, tunelak eta biaduktuak eraikiko liratekeelako; lanetan erabiliko diren zabortegi eta hondakindegien hedapena 36,6 hektarea baino handiagoa izango delako; gure naturaguneen magaletan hormigoizko zelaigune zabal eta luzeak eraikiko direlako. Horrez gain, Trenak Aurreratzeko

lo referente a la comercialización de productos pero entiende que la ubicación no es la más correcta toda vez que la mayoría de edificios han de ser demolidos, en consecuencia, la idea resulta demasiado cara; para finalizar, manifiesta que la inversión no tiene un retorno financiero claro.

En la réplica, el Alcalde-Presidente señala que hay inversiones públicas que efectivamente nunca tendrán un retorno financiero, p. ej. el Tren de Alta Velocidad, que es apoyado por la formación política PNV; en el caso de Barrundia se trata de apoyar al sector primario vía comercialización, en el que se intentará que el retorno financiero sea el mayor posible.

**7.- MOCION PRESENTADA POR LA PLATAFORMA "AHT-RIK! LAUTADA".**

VISTA: La moción presentada por la plataforma "AHTrik ez! Lautada" en fecha 28 de marzo de 2019 (registro de entrada nº 492), que textualmente, dice:

"El pasado 10 de enero de 2018, el Ministerio de Fomento puso a exposición pública su propuesta de trazado del **Tren de Alta Velocidad (TAV) que podría afectar gravemente a la Llanada Alavesa.**

Dicha propuesta de trazado supone un **enorme gasto de dinero público (850 millones de euros)** que pudiera ser destinado a otras necesidades sociales, como la mejora de centros de salud, escuelas, pensiones etc., o de la propia red de ferrocarril actual.

**Este proyecto de Alta Velocidad no supone ningún beneficio para la Llanada Alavesa**, ni desde un punto de vista de desarrollo económico y social, ni tampoco ambientalmente, como lo demuestra el Estudio de Impacto Ambiental del proyecto, que nos dejaría grandes terraplenes, túneles y viaductos; más de 36,6 Ha de vertederos y escombreras; anchas y largas explanadas de hormigón a las faldas de nuestros espacios naturales; además de un Punto de Adelantamiento y Estacionamiento de Trenes (PAET);

eta Aparkatzeko gunea (PAET) sortu behar da. Aipatu egitura horiek ikaragarrizko oztopoa sortuko die faunari, pertsonei eta herriei. **Horrela, paisaiari eta ingurumenari kalte handia eragiten zaie,** zeinak gure florari, ibaiei eta ur multzoari larriki eragingo liekeen.

**Gainera, pertsonen bizitzari kalte larriak lekarzkieke:** kutsadura akustikoa, dardarak, ikusizko eragina, lur publiko eta pribatuen desjabetzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikuntzak, ureztatzaileen elkargoei, ureztapen-putzuei,... eragina. **Eta, gure baliabide turistikoei eta kultura ondareari kalte egingo litzaieke,** besteak beste, Arabako baseliza zaharrenetako bat txikituko lukete, eta arkeologia zantzuak dituzten guneak suntsituko dira. Done Jakue bidea, Postasena, Inaziotar bidea, Vasco-Navarroren Bide Berdea,.... larriki kaltetuko lirateke.

Honezkero frogatu da abiadura handiko proiektuetan herrien, hirien eta industria-eremuen arteko lotura erraztu baino, AHT-ren proiektuak **gizartearen alderdi txiki-txiki baten mugikortasuna bakarrik betetzen duela,** distantzia luzetan eta hiriburuen arteko bidaiak egiteko. Gainerako landa-eremuek, herriek eta hiriek ez dute loturarik garraio baliabide horrekin, eta batzuetan, direnak galtzen dituzte, geltoki horietan gaur egun geratzen diren distantzia luzeko zerbitzuek ez dutelako iraungo etorkizunean.

Suedia, Erresuma Batua, Finlandia, Norvegia, Portugal, Irlanda, Australia, Kanada edota Estatu Batuak bezalako herrialde "garatuek" abiadura handiko kilometro gutxi edota kilometrorik ez duten bitartean, **Espainiako estatua biztanleko, abiadura handiko kilometro gehien duen herria da, eta proportzioan, gutxien erabiltzen direnak.** Joan-etorrien %6a AHTn egiten badira ere, abiadura handian ohiko trenetan baino askoz ere gehiago inbertitzen da, tren arrunten bideen egoera benetan tamalgarria izanik.

Gero eta jende gehiago agertzen da proiektu hauen aurka. Europako Garraio Batzordeak baieztatu du **Espainiako Estatuan, abiadura handia ez dela bateragarria salgaien garraioarekin.** Halaber, **Europako Kontuen Auzitegiak** dio AHTren linea berriak gainkostu eta atzerapen larriak jasaten ari direla, eta batez beste, diseinatu abiaduraren %45era bakarrik iristen dela. Horrengatik, **ondorioztatzen du, egungo linea konbentzionalen hobekuntza mundu osoan bete beharko litzatekeen jardunbide egokia dela.**

**Bereziki aipagarriak dira berriki baztertu diren abiadura handiko hiru proiektuak.** Aurrenean, Bordeleko hegoalderako bidean, 9.000 milioi euro gastatu nahi zuten abiadura handiko linea berrietan,

creando dichas infraestructuras una enorme barrera para la fauna, personas y pueblos; y **suponiendo un gran impacto paisajístico y ambiental**, que afectaría gravemente a nuestra flora, fauna, ríos y masas de agua.

**Supondría además graves perjuicios para la vida de las personas**, contaminación acústica, vibraciones, impacto visual, expropiación de terrenos públicos y privados, edificaciones agro-ganaderas, afección a comunidades de regantes, balsas de riego... **Y nuestros recursos turísticos y patrimonio cultural se verían afectados**, destrozando, entre otras, una de las ermitas más antiguas de Álava y destruyendo muchas zonas de presunción arqueológica. El camino de Santiago, el de Postas, el Ignaciano, la Vía Verde del Vasco-Navarro... se verían gravemente afectadas.

Ha quedado demostrado a través de los diferentes proyectos de alta velocidad ya existentes, que el TAV, lejos de favorecer la conectividad entre pueblos, ciudades y zonas industriales, es un **proyecto que únicamente cubre las necesidades de movilidad de una muy pequeña parte de la sociedad**, la que viaja a largas distancias y entre capitales. El resto de zonas rurales, pueblos y ciudades no tienen conexión con este medio de transporte y en algunos casos pierden los ya existentes, al dejar de parar en sus estaciones servicios de larga distancia que hoy en día lo hacen.

Mientras que países "desarrollados" como Suecia, Reino Unido, Finlandia, Noruega, Portugal, Irlanda, Australia, Canadá o Estados Unidos tienen muy pocos o carecen de kilómetros de alta velocidad, **el Estado Español es el país que más kilómetros de alta velocidad tiene por habitante y, en proporción, el menos utilizado.** A pesar de que únicamente el 6% de los desplazamientos se realizan en TAV, se invierte mucho más en alta velocidad que en el ferrocarril convencional, encontrándose muchas de sus vías en estado lamentable.

Cada vez son más las voces que se alzan contra estos proyectos. La Comisión Europea de Transportes ha confirmado que **la alta velocidad del Estado Español no es compatible con el transporte de mercancías.** Asimismo, **el Tribunal de Cuentas Europeo** afirma que las nuevas líneas de TAV sufren graves sobrecostes, retrasos y, de media, únicamente alcanzan el 45% de la velocidad de diseño. Por todo esto, **concluye que la mejora de las líneas convencionales existentes, se trata de una buena práctica que debería seguirse mundialmente.**

**Son especialmente significativos tres proyectos de alta velocidad que han sido descartados recientemente.** El primero, que pretendía gastar

**Bordel-Hendaia** linea sartuz. Aipatu proiektua ordezkatu dute egungo azpiegiturak hobetzeko; lan horien kostua %95a merkeagoa da. Bigarrenean, **Los Angeles eta San Francisco** abiadura handiko trenen bidez **elkartzeko proiektua** baztertu da; hartan milaka milioi euro gastatuko lirateke. Azkena, **Turin eta Lyon hiriak,** Val di Susatik, Alpeetan, **elkartuko lituzke**, non proiektua geldiarazi duten, Italiako Azpiegiturak eta Garraioaren Ministerioaren txosten batean, "ez dela errentagarria", aitortu ostean.

**Tren Sozialaren aldekoak gara. Herriak, eskualdeak, hiriak, industrialdeak eta pertsonen zein merkantzien garraioa elkartuko dituen, lurraldea egituratuko duen, gune isolaturik utziko ez lukeen eta edonorentzat ekonomikoki eskuragarria litzatekeen trena nahi dugu.** Maiztasunak handitu daitezela eta egungo azpiegiturak egokitu eta berritu daitezela nahi dugu. **Hirugarren erraila** ezarriz molda liteke, horrela, Europako zabalerako trenek ibili ahal izan ditzaten, Astigarraga eta Irun artean egiten ari den moduan. Abiadura handiko plataforma berriekin ez litzateke denborarik aurreztuko, egungo tren-sare eguneratuarekin alderatuta; gainera, abiadura handiko plataforma berria eraikitzeak eta mantentze lanek eragiten duten kostua baino askoz ere txikiagoa litzateke alternatiba honekin.

**Irmotasunez eskatu behar dugu gure baliabideak inor baztertuko ez duten, eta gure ingurumenari begirunea agertuko dioten proiektu jasangarriak egitera bideratu behar direla; honela ziurtatuko da gure zein etorkizuneko belaunaldien bizitzeko kalitatea.**

**UDALBATZAK HARTU BEHARREKO AKORDIOAK**

1. **"Tren Soziala Bai! AHT-rik EZ! Tren Social Sí! TAV NO!"** lelopean, Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 18an egingo den manifestazioari atxikitzen zaiola.
2. Udalean, deialdi publikoa egin dezala, aipatu manifestazioan parte hartzera deituz.
3. Hartu diren akordioen berri eman diezaiela Arabako Batzar Nagusiei, Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari.

Aurrenekoa ikusirik, Udalbatzak, 4 boto alde (EH BILDU) eta 3 abstentzio (EAJ), zera erabakitzen du:

<u>*LEHENA.-*</u> "AHT-rik Ez! Lautada" euskarriak aurkeztutako mozioa

9.000 millones de euros en nuevas líneas de alta velocidad al sur de Burdeos, incluyendo la línea **Burdeos-Hendaia**, ha sido sustituido por la mejora de las infraestructuras actuales, con un coste un 95% inferior. El segundo, es el abandono del **proyecto para unir Los Ángeles y San Francisco** mediante un tren de alta velocidad, habiendo gastado miles de millones de euros. El último, es **el que uniría las ciudades de Turín y Lyon** a través del Val di Susa, en los Alpes, y que está paralizado después de que un informe del Ministerio de Infraestructuras y Transportes italiano haya dicho que "no es rentable".

**Estamos a favor del Tren Social. Un tren que una pueblos, comarcas, ciudades, polígonos industriales y que transporte tanto personas como mercancías, vertebrando el territorio, sin dejar zonas aisladas y siendo económicamente asequible para cualquier persona.** Queremos que se incrementen las frecuencias y que se adecuen y modernicen las infraestructuras actuales. Podrían adecuarse mediante la implantación de un **tercer hilo**, para permitir que los trenes con ancho europeo puedan circular por ellas, tal y como se está realizando entre Astigarraga e Irún. Las nuevas plataformas de alta velocidad no supondrían ningún ahorro de tiempo, en comparación con la red ferroviaria actual modernizada; y el costo sería mucho menor que el gran gasto que supone la construcción y mantenimiento de una nueva plataforma de alta velocidad.

**Debemos exigir que nuestros recursos se destinen a proyectos sostenibles, que no marginen a nadie y que respeten nuestro entorno, y de esa manera asegurar nuestra calidad de vida y la de las generaciones futuras.**

**ACUERDOS A ADOPTAR POR EL PLENO**

1. Que se adhiera a la manifestación que bajo el lema **"Tren Soziala Bai! AHT-rik EZ! Tren Social Sí! TAV NO!"** se celebrará en Vitoria-Gasteiz el día 18 de mayo de 2019.
2. Que lleve a cabo un llamamiento público en el municipio para participar en dicha manifestación.
3. Que dé traslado de los acuerdos adoptados, a las Juntas Generales, al Gobierno Vasco y al Gobierno Español.

Visto lo anterior, el Ayuntamiento-Pleno, por 4 votos a favor (EH BILDU) y 3 abstenciones (PNV), acuerda:

<u>*PRIMERO.-*</u> Aprobar la moción

onartzea.

*BIGARRENA.-* Honako erabaki hau "AHT-rik Ez! Lautada" euskarriari, Arabako Batzar Nagusiei, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailari eta Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministeritzari jakinaraztea.

Eztabaidan, Alkate-Presidenteak adierazi du hizpide den proiektua bideraezina dela. Batetik, ez da iraunkorra, ingurumenaren ikuspuntutik, Lautadari dagokionez erabat zatituko duelako lurraldea, konektagarritasun ekologikoa hautsiko duelako, bai eta Kontzeju ugari ere; eskualderako nahi ez duten ibilbidea ez dute nahi beste batzuetarako ere. Bestetik, finantza-iraunkortasunik ere ez du, azpiegitura hori oso jende gutxirentzat delako, eta herritar gehienek ezin dituztelako ordaindu prezio garesti horiek.

Amaitzeko, adierazi du bere ustez badaudela beste aukera egingarri batzuk, hirugarren trenbide-haria, esaterako. Azken finean, xedea da Araba eta Euskal Herriko herri, hiri eta enpresa-inguruneak benetan lotuko dituen trena izatea; ondorioz, mozioaren alde agertu da erabat, bereziki Gasteizen egingo den manifestazioaren alde.

Suso zinegotziak (EAJ) azpimarratu du bere talde politikoa ez datorrela bat Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak Gasteiz eta Iruñea lotzeko proposatu duen ibilbidearekin, ingurumen-aldetik ondorio garrantzitsuak izango dituelako Arabako Lautadako herri askotan; erantsi du iritzi hori azaldu egin zaiela bai Espainiako Gobernuari bai Eusko

presentada por la Plataforma "AHT-rik Ez! Lautada".

*SEGUNDO.-* Notificar la presente resolución a la Plataforma "AHT-rik Ez! Lautada", a las Juntas Generales de Araba, al Departamento de Presidencia del Gobierno Vasco y al Ministerio de Fomento del Gobierno de España.

En el debate, toma la palabra el Alcalde-Presidente para señalar la inviabilidad del proyecto a debate, por un lado, se trata de un proyecto no sostenible desde el punto de vista medio ambiental, en lo que respecta a la Lautada va a crear una división absoluta del territorio, rompiendo la conectividad ecológica y destrozando una cantidad importante de Concejos, así, el trazado que no quieren para la comarca tampoco lo quieren para otras, por otro lado, la no sostenibilidad financiera en cuanto que se trata de una infraestructura para muy poca gente y con unos precios imposibles de abordar por la mayoría de la ciudadanía.

Para finalizar, entiende que hay alternativas reales como el tercer hilo ferroviario, al final lo que se pretende es un tren que conecte realmente los pueblos, ciudades y entornos empresariales de Araba y de Euskal Herria; en consecuencia, muestra su total apoyo a la moción y específicamente a la manifestación a celebrar en Gasteiz.

Acto seguido el edil Suso (PNV) remarca la oposición de su grupo político al trazado propuesto por el Ministerio de Fomento del Gobierno de España para unir Gasteiz e Iruñea debido a las importantes afecciones ambientales a una parte importante de pueblos de la Llanada alavesa, añade

Jaurlaritzari bai Arabako Batzar Nagusiei. Halere, aurreko guztia gorabehera, bere talde politikoa zeharo ziur dago Abiadura Handiko Trena lotura egokia izango dela Europarekin, bai eta garapen ekonomikorako motorra ere, eta salatu du mozioa aurkeztu duen Plataforma argi eta garbi dagoela AHTren proiektu osoaren kontra; azpimarratu du manifestazio-deialdia bat datorrela udal- eta foru- hauteskunde eta Europarako hauteskundeen garaiarekin, baina adierazi du mundu guztiak duela askatasun osoz manifestatzeko eskubidea; horregatik guztiagatik, bere taldea abstenitu egingo da bozketan.

**8.- OKT – BARRUNDIAKO KONTSUMITZAILE ELKARTEARI LOKALAREN LAGAPENA.**

OINARRIA: Alkatetza-Presidentziak proposamen bat aurkeztu du Ekinbide eraikineko lokal bat OKT Elkartea - Barrundiko Kontsumitzaile taldeari lagatzeko.

EMAITZAK: Lagako den lokala Ekinbide eraikineko ondare-ondasuna dela, katastroko erreferentzia hauekin: 1. poligonoa, 34. partzela, 1. eraikina, 2. unitate fiskala. Lagapen horren helburua zera da: udalerriko herritarren onurarako honako proiektu hauek garatzea:

*.- Aste egun guztietan oinarrizko / beharrizan handiko elementuak saltzea (eskualdeko eta bertako produktuak, batez ere).*

*.- Kafe, infusio eta gosaritako produktuen dastaketa.<0}*

*.- Informazio turistikoa emateko lekua (udal eta eskualde mailakoa).*

que dicha postura ha sido expuesta tanto al Gobierno de España como al Gobierno Vasco y a las Juntas Generales de Araba. Dicho lo anterior, expone su firme convicción a favor del Tren de Alta Velocidad como nexo de unión con Europa y motor de desarrollo económico y denuncia que la Plataforma que ha presentado la moción está abiertamente en contra del total del proyecto de Tren de Alta Velocidad, de inmediato subraya que la convocatoria de manifestación coincide temporalmente con el periodo electoral de los municipales, forales y europeas, a presar de lo anterior, todo el mundo tiene derecho a manifestarse libremente; por todo ello, su voto es el de la abstención.

**8.- CESION DE LOCAL A OKT-BARRUNDIAKO KONTSUMITZAILE ELKARTEA.**

VISTO: Que la Alcaldía-Presidencia presenta propuesta para la cesión de un local del edificio denominado Ekinbide a la asociación OKT Elkartea – Barrundiko Kontsumitzaile taldea.

RESULTANDO: Que el local a ceder es un bien patrimonial sito en el edificio Ekinbide, con referencia catastral polígono 1, parcela 34, edificio 1, unidad fiscal 2, y el fin de dicha cesión sería la de desarrollar los siguientes proyectos que redundarán en beneficio de los habitantes del término municipal:

*.- punto de venta de elementos básicos / de primera necesidad todos los días de la semana (productos locales - del eskualde mayoritariamente).*

*.- punto de degustación de cafés, infusiones y desayunos.*

*.- punto de información turístico (municipal y del eskualde).*